

HONDAR BIZIA

Harearekin duen 'maitasun harremanetik' jaiotako eskultura adierazkorrak, Andoni Bastarrikaren eskutik 16



100 euroko beherapenarekin estreinatu miele bat

Miele-ren Eco-Cheque promozioa

Aurrezteko eta ingurunea zaintzeko, aukeratu Miele. 2012/04/16tik 2012/06/16ra, **Eco-Cheque promozioak** 100 euroko beherapenarekin garbigailu, lehorgailu eta ontzi-garbigailu aukera zabala erosteko aukera ematen ditu. Aspiragailuen kasuan, deskontua 30 eurokoa da.

Erosi behar duzun etxetresna-elektrokoa gure banatzaile ofizialean eta Mielek 100 euro emango dizkizu (30 euro aspiragailuen kasuan).

Udaberri honetan bisitatu ezazu Milar Larramendi eta ingurugiroarekin konprometitzea merke aterako zaizu.

Aukeratu Miele. Aukeratu Alemaniako kalitatea.

Azkoiti-Azpeit ko Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897



Made in
Germany

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 139.a (2012ko maiatza)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Bastarrika
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik



2012KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



34

iritzia

Inkesta. Kukurik entzun al duzu udaberri honetan? **13**

mamia

Laura Agirre. Zumarragako Ospitaleko Gestio Ekonomikoaren zuzendaria, osasun zerbitzuaz **04**
Ekintzaileak. Proiektu komertzial berriak gauzatzeko ausardiaz **20**
Juan Karlos Arruti. Parot doktrinari buruz haren senideekin **24**



04



20

jakiteko

Atzera begira. Itziar Sagarzazu, 31 urte Loiolako Herri Irratian **34**

Ba al dakizu herriko Batxilergoko 2. mailako ikasleek gehien Leitzen duten aldizkaria uztarrria dela? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrian **943 15 03 58**

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide **gara** dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean. 117.010 euroko aurrekontua du Uztarriak 2011. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara

LAURA AGIRRE ALBERDI

Zumarragako Ospitaleko Gestio Ekonomikoaren zuzendaria

“Espazio arazoa dugu kontsultak bideratzeko”

Krisia egonagatik, zerbitzuen kalitatea “mantendu” dela dio. Botikengatik eta osasun-zerbitzuagatik ordaindu beharraz ere aritu da. 📝📞 Ainitze Agirrezabala

Abendura arte Zumarragako Ospitaleko Gestio Ekonomikoaren zuzendari kargua zuen; 2012a, ordea, ardura berriekin abiatu du, eta Goierrri-Urola Garaiko ESI-ko zuzendari ekonomikoa ere bada. Zumarragako ospitalak, zazpi osasun zentrok –Azpeitia, Azkoitia, Legazpi, Beasain, Lazkao, Zumarraga eta Ordiziko anbulatorioa– eta 15 kontsultategi txikik osatzen dute aipatu osasun-erakunde integratua. Zumarragako ospitalean 1998tik dago, eta hitz onak besterik ez ditu hari dagokionean. “Laneko giro onak eta ongi tratatutako langileriak bereizten gaitu. Aitzindariak eta aurrerakoiak izan gara, eta sari asko lortu dituen ospitala da”.

Zer da zure egitekoa?

Ospitaleko baliabide ekonomikoak ondo gestionatzen direla bermatzea. Ospitaleak aurrekontu jakin bat du funtzionamendu gastuetarako eta nik saiatu behar dut horrekin moldatzen. Nire ardura-pean daude hornikuntza eta mantentze sailak: ebakuntzak, kontsultak, urgentziak... egiteko beharrezkoa den osasun-material eta tresneria guztia baldintza egokietan izan behar da; azken horien kasuan azterketa guztiak gaindituta eta baimen guztiekin. Gastuen kontabilitatea eta kontratazioak egitearen kargua ere badut. Zenbait erabaki neronek hartzen baditut ere, ospitalean badugu zuzendaritza-batzorde bat, eta astero elkartzen gara,

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1968ko apirilak 13.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia.

erabakiak-eta hartzeko. Beste hainbat gai Gasteizko zuzendaritzarekin hitz egiten ditugu, urtean gutxienez hiru-lau aldiz elkartzen gara, urteko helburuez-eta aritzeko. Noski, ospitaleko organizazioaren helburuek bat etorri behar dute Gasteizkoekin.

Krisia eta Osasun Zerbitzu Publikoa nola uztartzen dira?

Urte oso zaila izango da, oso gogorra. Beharrak handitu egin dira. Gero eta adineko jende gehiago dago, krisi garaian gaixotasun psikologiko gehiago dago, itxaron-zerrendak gero eta handiagoak dira, jendeak gero eta

gehiago exijitzen du... Gehikuntza garrantzitsuko urteak izan ditu Osakidetzak, orain arte beti izan dugu inbertsioak egiteko aurrekontu bat, baina azken urte honetan aurrekontua mantendu edo jaitsi egin da. Dirurik ez dago, eta dagoenarekin moldatu beharko dugu. Eskaintzen dugun zerbitzuan krisiak eragin ez dezan sormena garatu beharra dugu, hornitzaileekin negoziatu... Eta esperantza izan garai hobea etorriko dela. Nolanahi ere, Espainiako beste erkidego batzuekin alderatuta nahiko ondo gaude hemen.

Gaur egun nora ari zarete bideratzen zuen inbertsioak?

Une honetako inbertsio nagusiena erditze gunea handitzeko lanetara bideratutakoa da. Orain erdi-



tzeko bi gela ditugu, eta aurrerantzean lau edukiko ditugu. Gero eta erditze gehiago dago eta ez gara ailegatzen. Bainuontzi bat jarriko dugu, hala erditu nahi dutenentzat. Ez dakit jendearen aldetik zer harrera izango duen, baina aukera hor egongo da. Uda eta gero inauguratuko dugu. Garai zailak dira, baina ospitalearen atzekaldean kontsultetarako eraikin berri bat egiteko proiektua ere onartuta dago, urte bukaeran hasteko. Izan ere, kontsultak barrakoietan ari gara egiten. Kamioi ibiltari bat ere badugu erresonantzia magnetikoak egiteko, abendutik. Orain arte, Azkoitiko eta Azpeitiko jendeak Donostiara joan behar izaten zuten.

Erditzerakoan Mendaroren aukera egiten dute batzuek.

Erditze zerbitzuak hemen oso ondo funtzionatzen du, ospitalia guztietan bezala. Oso ondo funtzionatzen duen ospitala da Zumarragako. Egia da erditze zer-

bitzuan nahiko justu ibili direla. Momentuak izaten dira. Urtean batezbeste 1.000 erditze ditugu. Horrek esan nahi du egunean hiru ume, batezbeste. Baina, ez da horrela. Egun batean batere ez, eta bihar hamabi. Erditze gunea handitzean kontsulta batzuek hara pasatu eta horrek lasaitasun pixkat emango digu.

Zumarragako ospitalea gainezka dagoela diote.

Garaiak izaten dira. Urtarrila eta otsaila jarduera askoko hilabeteak dira. Gripe garaian adineko jendeak bere gaixotasun kronikoen deskonpentsazioa sufritzen du, eta horregatik garrantzitsua da txertoa jartzea. Neguan adinekoak etortzen dira eta barne-medikuntza eta larrialdi-zerbitzua gainezka egoten da, oherik ez da libre egoten, eta jendea ezin dugu etxera bidali. Batzuetan beste zentzoren batetara bideratu behar izaten ditugu. Baina hau beteta dagoenean beste denak

ere hala egoten dira, normalean. Estuasun uneak izaten dira.

Urola Erdian beste ospitale baten beharra ikusten duzu?

Ez. Itxaron zerrenda badago, eta egongo dira espezialitateak itxaron zerrenda handiagoa dutenak, baina nahiko kontrolatuta dago.

Zer hutsune somatzen dituzu Zumarragako ospitalean?

Espazio arazoa dugu, lehen aipatu bezala. Mirariak egin behar izaten ditugu kontsultak partekatze-ko. Kontsulta berean goizez igoal dago dermatologoa eta arratsaldez otorrinoa. Esku artean ditugun bi proiektu berriek, ordea, emango digute arnasbidea. Helburua da espezialitate bakoitzak bere leku propioa izatea.

Osakidetza garai batean hobeto baloratuta zegoela ez al zaizu iruditzen?

Ez dut uste. Nik ez dut pertzepzio hori. Bistan denez, beti daude hobetzeko alorrak, eta krisi garaian sormena garatzea beharrezkoa

da. Badakizu, oparoaldian dena errazagoa da. Jasaten ari garen egoerarekin, zaila izan arren zerbitzuen kalitatea mantendu da.

Zer iruditzen zaizu ordaindutako osasun zerbitzua?

Ez dut uste hona ailegatuko denik. Batzuk diote erabiltzailea mugatzen duela. Ni ez naiz aditua, baina ez dut uste mugatzen duenik. Horiek erabaki politikoak dira, baina jendeak jakingo balu zenbat kostatzen den urgentzia bat, kontsulta bat edo ebakuntza bat beste kontzientzia edo arduraren batekin jokatu genuke. Azkenean, denon artean ari gara or-

“Espainiako beste erkidegoekin alderatuta nahiko ondo gaude hemen”

“Bainuontzi bat jarriko dugu, hala erditu nahi dutenentzat”

daintzen hori. Esaterako, badago jendea kontsulta batetarako hitzordura joan ezin eta aurrez abisatzen ez duena. Ez da ohikoa, baina batzutan kirofanoan ere gertatu izan da. Batez ere umeak ditugunok kezkatu egiten gara. Larrialdi-zerbitzuetara edo kontsultara inor ez da joaten gustuz edo adarra jotzera, beharra dagoelako da, baina batzutan oso erraz goaz, eta ez litzateke txarra jendea horretaz jabetu eta kontzientziaztea.

Eta, botikengatik gehiago ordaindu beharra?

Diru-sarreraren arabera ordaintzeak lan handia eskatzen du, eta gainera bizitza osoan medikamentuak hartu behar dituzten gaixo kronikoak zigortzen ditu. Itxura denez, orain dagoen osasun-kontseilaritza beste neurri batzuk hartzen saiatuko da.✳

Ekimen txikien bultzada

Ez dira betiko garai onenak...” zioen bi hamarkada baino gehiago dituen Hertzainak taldearen kanta batek. Ez dut uste beraiek etorkizuna aurreikustea zeukatenik baina bizi ditugun garaiak oso ondo deskribatzen dituzten esaldia da.

Ez dira ez garai gozoak bizi ditugunak. Ekonomiak ematen dizkigun datuak ez dira bate-re onak eta denok hasiak gara pentsatzen ea noiz emango diogun buelta egoerari. Ezin uka ez dela garaia gure patuaz kexatu eta geldirik gelditzeko. Baina oso zaila da ekintza blokeo bat ere ekiditea.

Egunero hedabideetan irakurri eta entzuten ditugun albisteek ezkortasunera bultzatzen dute bat baina orain, lehen baino gehiago, garrantzitsua da errealtatea onartu eta aldatzen saiatzea.

Europar erakunde nagusiak ekimen handietan oinarritzen ari dira krisi egoerari aurre egiteko, baina egunerokotasunean erori gabe garrantzi handia izan dezakete ekimen txikiek. Beraiek dira bere apaltasunean gure errealtatea zertxobait hobetu dezaketenak eta aldi berean itxaropen pixkat eman hainbeste sufritzen ari diren familia eta jendeari.

Europa mailan defizita bihurtu da buruhauste handiena agintarientzat, baina familia arruntentzat hil bukaerara iristea bihurtu da buruhauste. Ezkortasuna nagusitzen den garai honetan beharrezkoa da herriko biztanleei etorkizunarekiko itxaropena zabaldu dezaketen ekimenak diseinatu eta abian jartzea. Ez da erraza, baina beharrezkoa.

Egoeraren konponbidea ez da Bruselako, Madrilgo edo Gasteizko bulegoetatik iritsiko, nahiz eta beraiek diren egoera orokorra aldatu dezaketen neurriak hartzen dituztenak.

Gainera, jendea konturatu dela uste dut hitz-jolas maltzurtean gaudela. Agintari nagusientzat defizita den bitartean hitz nagusia jende arruntarentzat langabezia, prekarietatea eta kaleratzeak bihurtu dira hiztegi berriko hitz nagusi.



markel mendizabal

||| Hain gaizki pasatzen ari diren herriko familiei animo eta itxaropen guztia eman behar zaie

Garai errazak ez dira, baina txarretik beti zerbait ona ateratzen dela sinesten dugunon artean itxaropen izpiak ere hor daude. Beharrezkoa da itxaropena sustatzea herritarren artean, ezinbestekoa esango nuke nik.

Herri eredu aurrerakoia

Urtebete beteko da hilabete honetan gure herriak aldaketa gosea zuela adierazi zuenetik. Udal berriak erronka gogorra du orduan sorturiko itxaropen eta ilusio guztiari erantzuteko, baina ezin uka beharrezkoa dela hiri eredu aurrerakoi gauzatzen joatea ekimen apal baina eraginkorren bidez. Orain Frantziako hauteskundeetatik Europarako eredu berria irten daitekeen honetan ea Udalak ere posible duen herri eredu berria finkatzea eta batik bat itxaropena sortzea gizarte justuago eta orekatuago batean sinesten dutenen artean. Hiru urte ditu oraindik aurretik eta ez da

etsi behar, historiak behin baina gehiagotan frogatu duen bezala posible delako marearen indarrari aurka eginez eredu sozial eta politiko berriak gauzatzeari. Hain gaizki pasatzen ari diren herriko familiei animo eta itxaropen guztia eman behar zaie. Beraientzat denon indarra eta babesa.✱



1.solairuan gaude



Berezko prezioa
2.050 euro

Maiatzeko eskaintza

%20^{ko} DESKONTUA
1.640 euro

ezaugarriak:

320 cm-ko salako altzaria. Kolore eta neurri ezberdinak



urrategideko

altzariak & sukaldeak

cm
círculo
muebles

Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es

Kanporakoien gizarte

Nola definituko zinateke, kanporakoi edo barnerakoi?

Konplexuak gara, eta ezin da esan txuria ala beltza, grisa edo urdina garen, eta etiketek mugatzen gaituzte sarritan. Hala ere badugu behin eta berriz errepikatzen dugun joera bat gure egunerokotasunean, gure izaera definitzen duena. Molde psikologikoetan gehiegi murgildu gabe (nahi duenak Jung irakur dezala), batzuk izatez, kanporanzko joera gehiago dute, jende zaleago dira, taldea atsegin dute, kontaktu ugari egiten dituzte; beste batzuk barnerakoiago, bakarzaleago, eta ethezaleago joera dute, eta kontaktu gutxi eta intimoagoak egiten dituzte.

Hortik abiatuta, aurrekoan irakurri nuen artikulu batean Estatu Batuetako populazioaren %75a kanporakoi kontsideratzen dela, eta gizarte okzidentalean orohar kanporakoi izatearen tendentzia hori nabarmen bultzatzen dela, nola lana eskaintzerako orduan, hala eskoletako irakaskuntza metodoetan giza harremanetak garatzerako orduan. Badirudi, modu azkar batean esanda, ongien funtzionatzen duen eredu tipa "guay" edo "cool"-arena dela, hau da, besteekin erraz eramaten dena, lagun asko dituen, umore onekoa, hiztuna, positibioa.

Gauza naturala da gizakiok, izaki sozialak garen neurrian kontaktuaren beharra izatea, maitatu eta maitatuak izateko, zorientsuak izateko, eta harremanak bilatzea eta gartztea, besteekin biltzea, lagunak egitea. Hala ere, gizarte batean modelo definitu bat gehiegi bultzatzeak badirudi zerbait ezkutatu nahia edo beharra ere agertzen duela.

Kontu honen haritik, beste artikulu batean zioena (eta ez pentsa asko irakurtzen dudarik); Interneteko sare sozialetan-eta bazela jendea kontaktuak erosten zituena. Erosi, bai, besteen aurrean lagun asko dituen norbait bezala agertzeko.

Grafikoki esanda kanpotik etxea zenbat eta txukunago, ikusgarriago, dizdiratsuago,



iosu salegi

Osasungarria da, noizean behin, norbere ohitura eta joerak aldatzea, osasun mentala orekatzeko

trapua pasa eta pasa (ongi dago hori ere!), askoz hobe, gero barruan inork bizi behar ez badu ere.

Rolen aldaketa

Osasungarria dela diote eta neuri ere hala iruditzen zait, noizean behin, gehiago edo gutxiago, norberak dituen ohitura eta joerak aldatzea, burua pixkat freskatzeko, osasun mentala edo emozionala orekatzeko. Barnerakoi eta bakarzaleenei (Ruperren Jon Trollope berari ere) nohizean behin, kalea etxeke leihotik ikustea utzi eta aurreko tabernara jaistea ongi etorriko zaie, sozialenei edo kanporakoienei mobila deskonektatu eta egun bat inorekin hitz egin gabe mendian pasiera eginez ibiltzea, ongi etorriko zaien moduan. Lanean eta ikasketetan, taldean ideiak elkarbanatu eta harremanak sustatzea bezain egokia ez al da bakardadean gauzak, pentsatu eta bilatzea?

Metodo eta eredu zurrunek sor dezaketen kalteaz ohar gaituzen.*





Batxilergoa

- Zientziak eta teknologiako batxilergoa
- Giza eta gizarte zientzietako batxilergoa

Etorkizunerako ate guztiak zabalik



ZATOZ IKASTOLARA!

- Kooperatiba, auzolana oinarri
- Ordu-tegi jarraitua - 08:30etatik 14:50era
- Jangela eta garraio zerbitzuak
- Euskal Curriculum, ikaslea ardatz
- Ikaslearen banakako jarraipena
- Ordenagailu bidezko ikasketa
- Eleanitz proiektua – ikasgaiak ingelesez
- Kirol eta kultur elkartea
- Tailerrak eta ikastaroak

Aurrematrikula egiteko epea: maiatzak 2tik 11ra

www.azpeitikoikastola.net
943 15 12 46

*Informazio eskaera egiten dutenen artean
Tablet bat zozketatuko da.

Inskripzio epea
zabalik!

Goi Eskola Politeknikoa

Arrasate **MAIATZAK 12** larunbata, 10:30



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Eskoriatza **MAIATZAK 26** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia **MAIATZAK 26** larunbata, 10:30

HIZKUNTZ ESUBIDEAK

**GORA.** Karteletako oharretan euskara nagusi!

Babestu ezazu euskara, eta kartelak bi hizkuntzetan egin behar diren kasuetan, eman garrantzia berezia euskarari! Eskertuko dizu! [Uztarría](#)

**BEHERA.** Ardoa eta pintxoa prezio onean; euskara, berriz,...

Badirudi euskara garesti samar dutela. Saltoki, jatetxe eta abarretako kartelak euskararatzeko zerbitzua eskaintzen du udal Euskara Patronatuak. [Uztarría*](#)



Maitane Ostolaza.

ESANA DAGO

“Juanjo Olaizolari museoan geratzeko aukera eskaini zitzaien, buruan nuen, lantaldean leku bat baitzuen. Baina dirudienez denok ez dugu talde lanean sinesten”

“Museoaren eta Azpeitiaren harremana estutu nahi dugu”

MAITANE OSTOLAZA
Burdinbidearen
Euskal Museoaren
Fundazioko zuzendaria

“Ordizian eta Azpeitian emandako urteak izan dira ibilbideko onenak”

JOAQUIM RODRIGUEZ
txirrindularia



kutxa



domusa

Hau dek hau panoramie



txetxu urbieta

Izan ala ez izan, eta izanez gero zertarako izan. Hori da kontua, hori da arazoa. Aitortu beharrean nago, krisi existentzialista sakonean murgildurik bizi naiz. Barrua hustu eta aurra egiteko, terapia publikoa bezelakorik ez.

Izan ginenetik izango garenerako urratsa errena da. Dena izatetik zerbait izango ote dugun zalantza egitera pasatzea gogorra da. Aberatsen bizitza egitetik pobre izateko arriskuan egotera, loa galerazteko adina arrazoi bada. Dena jakin, orojakile izan eta bat buena egiten ez dutenei so eginez gero, ez gara inoiz izan ginenak izatera itzuliko. Algara eta

jaujak akabo, negarra eta aienea nagusi. Hau dek hau panoramie.

Arantzazuko aingeruak, On Pello Zabalak alegia, tenporetan fede osoa du. Tenpora ekonomikoek ekaitza eta egoera narratza iragartzen dute, luzaro iraungo duen borrhaska. Diru sarrerak murriztu eta poltxikoko zuloa handitu. Eta gure xentimo urriekin gure diruzorroa zulatzen dutenen urrezko "visa" gizendu. Hau dek hau panoramie.

Egoera penagarri honetan bizizale edo "viditor" bezala ezagutzen ditugunak ditut go-goan. Eta eredu ere bai. Nostalgiaz atzera

begiratu eta datorkigunaren zai negarrez egoteak zentzurik ez du. Jaio baginen bizitzeko jaio ginen eta ez irauteko. Abitainera joan, edo eraman aurretik, hemen behean pasatuko urte apurrei zukua atera beharko diegu. Hiletan apaizak esan dezala badoa baina joateko ere ez dago gaizki. Eliza gainezka beteko dutenek esan dezatela alu horrek jakin zian nola bizi. Hori bai, ez dago presarik. Aukera aukeran, besteak agurtzea hobe. Egunean egunekoa eta, ahal bada, ona. Bihar ere, edo etzi, edo etzi damu, berriro ere argituko du. Bien bitartean bizi.✘

IKUSTEKO!



▲ZORIONAK IZEBEA JEXUXA!

Jexuxa Garmendia Errasti mojak mendea bete zuen, otsailaren 5ean. 80 urte daramatza Argentinako La Platan bizitzen, eta haren ilobak –argazkian ezkerretik hasita ilaran: Maite, Mikel, Amaia eta Miren– izeba bisitatzen izan dira, urtebetetzeko kandelak itzaltzen laguntzeko aitzakian. Mojak berak ez omen du sinesten 100 urte bete dituenik. ✉ Maite garmendia✘

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



1.700 lagunetik gora erakusketan

SOKAMUTURRA. Zenbait asteburutan kalera atera eta herriak basamortua dirudi, baina sokamuturra bada zintzo denek hitzordua betetzen dute. Festa honek jokua ematen die argazki elkartekoei nahiz beste argazkilariei une hunkigarri horiek izozteko. Erakusketan jartzean guztioi gustatzen zaigu argazkiak ikustea. Haien lana gogorra da batzuetan baina jarrai dezatela egiten, gure begiek goza dezaten.



aitor gorrotxategi



Ur Partzuergoa

URA. Batzuentzat arraroa den arren herri asko daude Partzuergoan sartuta, eta uste dut herriak irabazi egingo duela. Nahiz eta kobratzeko modua aldatu eta berriro hiruhilabetero ordaindu ura eta zaborra, guri ekarriko dizkigun abantailak handiak izango direlakoan nago.



Danbor taldea, Hazparnerako

SENIDETUTA. Badira urte batzuk azkenekoz Hazparnen izan nintzela, baina oso ongi hartu gintuzten eta gogoan dut pasatu genuen egun zoragarria. 86az geroztik gaude senideturik eta badugu elkarrengandik zer ikasia eta ikusia. Zerbaitetan antza badugu festazaletasuna

aipatuko nuke. Gu baino abeslariagoak dira eta otordu baten inguruan bost minutu pasatu orduko abesten hasten dira. Kultura ezberdinak ditugu baina amankomunean danborrada dugu. Gonbitea luzatu digute eta ea talde sendo bat elkartzea lortzen duen gure herriak. ✘

INKESTA

kukurik entzun
al duzu udaberri
honetan?

Ainitze Agirrezabala

ALEX AGIRRE

langilea



“Bai, apirilaren 14an aditu nuen Cobarrubiasen, Burgosen. Hori ez da plaian egoten. Andrearekin pasieran nenbilen, eta hark xemekorik ez, baina nik kartera bete-betea nuen. Harrezkero bonolotoan jokatu dut, baina ez zait tokatu”.

JUANJOSE BEREZIARTUA

langilea



“Ez dut ba oraindik entzun. Kalean zaila da aditzea, eta lehen aldean orain gutxi joaten naiz baserrira. Baina, kukuaren kanta entzutea tokatzen bazait, diruarekin harrapatu nadila”.

JUANJOSE ZUBIZARRETA

jubilatua



“Bai, orain dela hilabete bat Xoxoten, Izarraitzen. Baina aurten berandu hasi da kukua kantuan. Ez dakit urtean zehar suerterik emango didan, baina kukua entzutean dirua banuen”.

LEIRE ODRIOZOLA

ikaslea




“Ez. Beste urteren batean aitarekin eta mendira joan izan naizenean entzun izan dut, baina aurten oraindik ez zait tokatu. Egia esan ez dakit kukuaren kanta entzuteak zer esanahi duen”.*

Laino artean

Iristear diren azterketak direla eta, imajinatu liburutegia, Zubi Zaharreko entsegu lokaletako anplifikagailu guztiak bertan direla. Bolumena topera jarrita, baffleetatik James Hetfield-en ahotsa entzuten da, liburuak dardarka jartzeraino. Eta Metallicak tinpanoak lehertu beharrean jarri arren, liburutegia ikaslez beteta, iristear diren azterketak prestatzen.

Edota, irudikatu astea pasteldegian pasatzen duten andreak zapatu gauean Txarrantxan, Eskorbutoaren *Cerebros Destruídos* kantatzen. Edo herriko munipak *hippyak*, txima luzeekin, bakea eta maitasuna, porrua eskuan, multen aurka ohiukatzen, borra handi batekin errepideko batxeak apurtzen.

Bestela igo Xoxotera, San Inazioaren ondora, eta pentsatu egungo Azpeitiarik ez dela. Zelai zabal bat, eta erdian Urola ibaia, ia besterik ez. Baserriren bat edo beste agian, baita artalderen bat ere, baina ez fabrika ez elizarik. Igerileku irekirik ez, ondo begizatuz gero, umeak ibaian jolasten, eta helduek,



yuri agirre

berriz, soroan lekua soberan baitute luze-luze etzan eta kasik egunero egiten duen eguzkiaz gozatzeko.

Eta iragarri Ertzaintzaren adar politikoa ilegalizatua, Ares eta bere lagunaren aurkako sarekada. Eta hogeitau urte barru, kondena bukatzeko bi egun falta zaizkionean, Parot Doktrina ezartzen diotela Inigo Cabacases hiltzaileari. Eta Confebask eta Adegi greban, CEOEkoen egun berean, baina bakoitza bere aldetik, gure nortasuna mantentzeko. Herriko enpresariak, pikete informatiboetan, edo sindikatu nagusien egoitzetan pintadak egiten: *zuen aberastasuna, enpresarion miseria*, diote kaligrafia txarrez “tablet” etan idaztera ohitutakoek.

Nahiko errepikakorra eta aspergarria izaten da askotan gure eguneroko bizitza. Ez da komeni laino artean bizitzea, hankak lurtean izatea baizik. Hala ere, noizean behin ondo dago gure buru eskemak apurtu, irudimenari eragin, eta gauzak nolakoak diren baino, nolakoak izan litezkeen pentsatzea.*

galdetzen hasita, zenbat azpeitiarrek egingo dute aurten errenta aitortpena euskaraz? Uztarria

Barkamena eta politika



joxe arregi

Patxi Lopezek esan du: “Barkamena kontzeptu kristaua da eta beharbada ez da beharrezkoa”. Antzera mintzatu da Martin Garitano ere: “Barkamena konnotazio erlijiosoak ditu eta ez zait gustatzen politikan aplikatzea”.

J. I. Munilla, Donostiako gotzainak, ostera, azpimarratu du ezen damua eta barkamen-eskea ezinbestekoak direla, erlijio arloan ez ezik, politikan ere.

“Barkamena” nola ulertzen den: hor dago gakoa. Zergatik diote lehendakariak eta Ahaldu Nagusiak halako higuin bat “barkamen” hitzari? Segur aski, eliz zoko ilunetako aitorleku larriak dakarzikielako gogora, erruaren eta beldurraren erlijio moralista klerikalak: bekatua, “Jaun goiko” iraindua, zigorraren mehatxua, erru-sentipenaren harra, Jainkoaren ordezkariaren aurrean lotsa gorritzko aitortza, penitentziako ekintzak, apaizaren absuluzioa, Jainkoaren barkamena eta kontzientziaren arintzea... hurrengo bekatu arte. “Barkamena” hori bada, lehen-

dakariak eta Ahaldu Nagusiak arrazoia dute: ez du lekurik politikan.

Nago gotzainari dagokiola “barkamenari” buruzko argibideak ematea, ETAK barkamena eskatzea ezinbestekoa dela esan aurretik. Aitortu beharko liguke, eliz erakunde katolikoak aitortzaren eta barkamenaren inguruan muntatutako sistemak zenbat min eragin duen kontzientzietan. Erakutsi beharko, erruaren eta zigorraren logikatik askatu beharra da goela barkamena, politikan aplikatuko bada.

Eta nago, erruaren eta zigorraren logika erlijioso makur horretatik askaturik, barkamena ezinbestekoa dela politikan. “Min egin dizut, sentitzen dut” esatea gizatasuna da. Min egin digunarengan sinestea gizatasuna da. Min egin digunak ere bere minak dituela ikustea gizatasuna da. Min egin digunarekin batera iraganari baino gehiago etorkizunari begiratzea gizatasuna da. Eta gizatasun hori gabe ko politikan ez dut sinesten.*



banitxik
sexu tallerrea.



hi seguru al hao
"sexu tallerrak"
hori esan nahi dula?



Ezizenak

Rodolfo entzun dut, ez direla zipaioak esanaz, eta harritu egin naiz. Orain dela hogeit hamar urteko kontu batekin gogoratu naiz gero. Hazparneko lehengusu txiki bat Urdaubini lan egiten zuen valentziar batekin ezkondu zela-eta, Bilboko kontsulatura joan behar izan zuten dokumentuak zuzentzera. Bilbokoak egin eta gero Azpeititik pasatu ziren ezkonberriak eta neskaren ama, bisita egitera. Ezkonberriak ez genituen ezagutzen, eta hasierako hartu-eman horietan "eta zuk zer egiten duzu" galdetu genion mutilari. "Ni pikoloa naiz" erantzun zuen, txakurra baino

freskoago (hau ere inoiz baino hobeto esanda dago).

Poliziak beti izan ditu ezizenak, eta ezizenekin bi jarrera har ditzakegu: jarri dizutena onartu, edo onartu plantak egin (eta agian ez da betiko izango), edo marmarrean jardun ez zaizulako gustatzen, ezizenak ez duelako zure deskripzioa zuk nahi bezala egiten... (eta horrela seguru betiko geratuko zaizula ezizen hori). Eta ertzainek ere gauza bera egin beharko lukete: gutxien-gutxienez onartu plantak egin. Badituzte bestelako ezizenak ere, baina oso *light*-ak dira, eta ez dakit oso adie-



■■■■■■■■■■■ñaut frantsesena■■■■■■■■■■■

razkorak ote diren ere. Bestetik, ezizenak zabaldu eta aldatu ere egiten dira. Egun "estupa" deitzen zaien horiek sasoi batean "Brigada de estupefacientes" delakokoak ziren. Gaur paisanoz dabilen edozeini esaten zaio.

Hitzak nahieran erabiltzen ditugu: nahi dugun esanahia ematen diegu, eta denborak esanahiak aldatu egin ditzake. Gainera, edozeinek izan dezake aldaketa horretan parte: gauzak normalidadez onartuz, hainbat jarrera aldatuz, eta abar.

Ezizenak normalizatzen ditugunean normalizatuko da gure gizartea ere.*

EMAN EZAZU ZURE NEGOZIOAREN BERRI UZTARRIA.COM BERRIAN

**Egunean 2.000 bisitatik gora.
Interneteko bilaketetan zure negozioa aurreneko postuetan agertuko da.**

http://www

SORTU ZURE NEGOZIOAREN WEB ORRI PROPIOA

**Eskaintzak, argazkiak, loturak...
modu ikusgarrienean jartzeko aukera.
Urtean 35 € soilik**

uztarria.com

Informazio gehiago: 943 150358 - uztarria@uztarria.com


Harearen magia

Duela urtebete hasi zen hondarrezko eskulturak egiten hondartzan. “Loturarik gabeko maitasun harremana” du hondarrarekin. 📌 A. Agirrezabala 📍 Andoni Bastarrika



▼ ERRINOZEROA.

“Garbia da eskultura honek irudikatzen duena; gorputz sendo horrek, begiradak, kristoren indarra igortzen du”, dio Bastarririkak. Egin duen azkeneko lana da. “Emakume bat hasi nintzen egiten, ume txiki bat gainean zuela, baina bat-batean dena erori eta errinozeroaren irudia ikusi nuen garbi-garbi”.



▲▼ IZURDE ARTEAN.

“Naturarekin, gainontzeko animaliekin gizakiak duen harremana irudikatu nahi izan dut. Orekan, harmonian bizitzea. Uretan jolasean ari dira izurdeak eta gizon-emakumeak, denak batera: gizartea, animaliak, natura...”. Urtebete inguru da Bastarririka hareazko eskulturak egiten hasi zela. “Hondarrarekin loturarik gabeko maitasun-harremana dut”.





▲ AMAREN BABESA.

"Biziaren babes. Babesten gaituen zerbait hor atzean badugula, sentsazio hori irudikatu nahi nuen. Lana bukatu eta argazkiak ateratzen hasi nintzen. Udazkena zen, marea biziak zeuden. Zeozer bazetorrela sentitu nuen, eta kristoren zarata entzun nuen. Sekulako olatua lehertu eta eskultura urak harrapatu zuen. Irudikatu nuen hori bizi izan nuen. Kaosaren erdian seguru gaudela.

► IREKI BEGIAK.

"Oso adierazgarria da eskultura. Goibel dago, triste. Amona ari zaigu esaten: 'Zertan ari gara. Ireki begiak'. Ez gara pertsonalitate bat, eta soinean eraman ohi dugun maskara hori erortzen ari zaio. Garena izan behar dugu, ez besteek izatea nahi dutena. Adoretsuak izan behar dugu".



▲ BASTARRIKA, HASIBERRITAN.

"Zazpi orduz hondarrarekin lanean jardun eta eskultura erortzen bazen amorrus betetzen nintzen hasieran". Gerora ikasi du hondarrak berak erakusten duela lana nola egin.





◀▲ HONDARREZKO EMAKUMEA.

"Ez da Venus edo halako ezer. Emakumea irudikatu dut, edertasunaren sinboloa baita. Perfekzio horretara arrimatu nahi izan dut. Eskulturak egiterakoan "sormen handia" duela dio. "Ideia zehatzik gabe hasi ohi naiz, baina kasu honetan emakume bat posatzen agertzen zen argazki bat eraman nuen Getariako hondartzara".



▲ GUDARIAREN ATSEDENA.

"Jendeari atentzio gehiena eman dion lana da. Hiru metro luze, kristoren eskultura atera zen. Bi egunetan egin nuen. Bakerako gogoia transmititu nahi izan dut lan honekin. Beti gerran eta borrokan, heldu da bakea eta gudaria atsedena hartzen dago orain. Orain ez da existitzen ona eta txarra. Dagoena dago".*

Ekintzaile ausartak

Krisiaren atzapar beltzak lepoa estutzeko mehatxu egiten duen aldi honetan, badira negozioa irekitzeko bide berriei ekin diotenak. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

Ekintzaile hitza magikoa bihurtu da ekonomia suspertzeko ahaleginean ari garen garai honetan. Gure inguruan industriaren beherakada izugarria bada ere, beste era bateko jarduerak edo proiektu komertzialak gauzatzeko bide berriak urratu dituztenak ere badira. Baina zenbat ekintzaile dago Azpeitian? Zer eratakoak? Zer kezka dituzte? Krisiaren atzapar beltzak lepoa estutzeko mehatxu egiten duen aldi honetan, negozioa irekitzera ausartu diren hiru ekintzaileekin hitz egin du Uztariak.

Krisia lehertu zenetik, negozioak irekitzeko joerak beheranzko norabidea darama. Iraurgi Lantzeneko enpresa arloko arduradun Alazne Larrañagaren esanetan jendea "asko beldurtu" da. "Jakinminez kontsulta egitera gurgana datozenen kopurua mantendu egin da, oro har; baina martxan jarri diren egitasmoen zenbatekoa jaitsi. Aurtengo urtea oso eskas hasi dugu. Lehen bi hilabetetan kontsulta kopuru oso txikia izan dugu; martxoan jendea zerbait animatu da, baina lehen hiruhilabetea eta gero, egitasmoa martxan jartzeko asmoa duen pertsona bakarra dago Azpeitian".

Ideiarri forma ematen, eta asmo hori enpresa batean bilakatzen laguntzen diote ekintzaileari Iraurgi Lantzenetik. Horretarako, bideragarritasun azterketa egiten dute. Iraurgi Lantzenek emandako datuen arabera, krisia hasi zen garaian, 2008an, 25 kontsulta jaso zituzten, eta haietatik 11 jarri ziren martxan;



Santi Peñagarikano, atzekaldean bere webgunea duela, etxeko bulegoan. |||S. Peñagarikano

2009an jasotako 28 kontsultetatik 10; 2010ean 27 aholku eskaera jaso eta 9 ateraziren aurrera; eta 2011n jasotako 26 kontsultetatik 7. Datuek argi erakusten dute negozio bat irekitzeko zailtasunak gero eta handiagoak direla.

“Behartutako ekintzaileak”

Ekintzaileei dagokionean ere, azken lau urteetan haien “profila asko aldatu” dela azpimarratu du Larrañagak. “Negozioa irekitzea erabakitzen duenaren adina igo egin da, eta lehen emakume ekintzaileak zertxobait gehiago baziren ere, orain bi sexuen kopurua maila berean dago”. Era berean, norbanakoa ekintzaile izatera bultzatzen duten arrazoiak ere aldatu direla gaineratu du: “Lehen, urte batzuk lanean egin eta merkatuan aukera bat ikusi zuelako zetorren gugana ekintzailea. Orain, berriz, gugana datorrena ura leporaino duela dator, langabezian dago, adin horretan lana bilatzea zaila dela-eta etsita. Horregatik, guk bi eratako ekintzaileak bereizten ditugu, aukeragatik datozenak eta beharrak

bultzatutakoak. Eta premiak behartuta datorren ekintzaileak izugarritzko zailtasunak izaten ditu finantziario lortzeko, iturriak itxita ditzutelako bankuek. Orduan, gaur egun ekintzailea dago dezente oztoporekin negozio bat aurrera ateratzeko”.

Interneta, lanerako tresna

Duela urte batzuk pentsaezina bazen ere, teknologia berriak ari dira merkatuan lekua hartu eta emaitzak ematen. Gure inguruan dagoeneko badira batzuk Interneta lanerako eta negozioetarako tresna bezala darabiltenak. Azpeitian, esaterako, badira Internetez Txinako bizikletak, Mexikotik erositako aurpegiko kremak edo artisau-oinetakoak saltzen dituztenak. Askok uste ez arren, sareko negozioak indartsu datoz.

Interneta du lanabes Santi Peñagarikanok. Etxean duen bulegotik egin izan du lana betidanik, webguneak, katalogoak eta txartelak egiten. “Orain dela pare bat urte *hobby* bezala www.motorra.eu ataria sortu nuen. Atari sinplea, erabilterraza eta diseinu garbikoa.

Hasieran, motorraren munduko albisteak lantzen nituen, euskara hutsean, eta egunero elikatzen nuen bloga. Baina etekin-ekonomikoa lortzeko buruari bueltak eman, eta nire webgunean iragarkia jarriko zuten babesleen bila hasi nintzen. Azpeitiko auto-tailer eta kontzesionarioetan bilatu nituen iragarleak, gero Azkoitira joan nintzen, Zumaiara ondoren, Zarautzera... Saiatuz gero diru-iturria izan zitekeela ikusi nuen”. Gipuzkoa mailan dabil oraindik. “Urola bailara egin dut, Tolosaldea ere bai, Goierri... eta orain nabil Deban, Oñatin, Arrasaten... Une honetan 80 bezero ditut, baina gehiago lortzea dut helburu. Ahaztu gabe hemendik eskerrak ematen dizkiet amets hau betetzen laguntzen ari zaizkidan guztiei”.

Urte eta erdian bi lanak eginez aritu da, baina “erotzeko modukoa” zela dio. “Professionalizatu eta indar guztiak *motorra.eu* atarira bideratzea erabaki nuen, duela bost hilabete”. Interneten webgunerik edo inolako presentziarik ez duen tailer eta kontzesionario asko dagoela kontatu du Peñagarikanok. “Urtean kuota txiki bat ordainduta nire webgunean agertzeko aukera eskaintzen diet. Negozio bakoitzaren fitxa osatzen dut, datu garrantzitsuenekin: negozioaren telefono zenbakia, ordutegia, instalazioaren argazkiak eta bigarren eskuko autoen iragarkiak jartzen ditut, eta GPS bidez sateliteko mapa batean kokatzen dut saltoki bakoitza. Interneteko komunikabidea izateko iragarkia jartzeagatik ordaindu beharreko prezioa egokia da”.

Ataria euskara hutsean izateak abantailak ere baditu. “Euskaraz ez da ezer argitaratzen kotxeei buruz egunkarietan, ez dago aldizkariarik, telebistan ez dago saiorik... eta *Google* bilatzailean norbaitek hitz klabeak jartzen dituenek bilatzailea oso eskuzabala da eta lehenen edo bigarren azaltzen naiz, normalean. *Facebook*-en ‘Motorrean euskaraz’ izeneko profila ere badut, eta *rally*etako bideoak ere igotzen ditut, *Youtube*-n dudak kanalerak. Bideo oso xumeak dira, baina sarean funtzionatzeko gakoa azkar igotzea da. Gero, taillerrez tailer produktua saltzera joaten naizenean, zenbat bisita ditudan galdetzen didate. Adibidez, inguruko *rally*etako bideoek milaka bisita izaten dituzte, eta webgune osoan iaz 500.000 albistetik gora irakurri ziren. Harri-garriena da, nire bezerorik onenek euskaraz ideiarik ere ez dutela, baina kontziente dira euskaldunei asko gustatzen zaiela halako edukiak irakurtzea”.

Zereginik ez zaio falta; kazetari, argazkilari, administrari eta komertzial lanak egiteaz bera



||| BEHERANZKO JOERA |||

11 **egitasmo.** Krisia hasi zen garaian, 2008an, 25 kontsulta jaso zituzten eta haietatik 11 jarri ziren martxan.

Negozio 1. Aurtengo urtea, berriz, “oso eskas” hasi dute. Lehen hiruhilabetea eta gero, egitasmoa martxan jartzeko asmoa pertsona bakarrak du.

||| “Ura leporaino dutela datoz, langabezian daude, adin horretan lana bilatzea zaila dela-eta etsita”

||| “Ekintzailearen adina igo egin da, eta emakumeak lehen gehiago baziren ere, orain parekatuta daude”

ALAZNE LARRAÑAGA

Iraurgi Lantzeneko enpresa arloko arduraduna

►arduraten da. Auto-tailerrak, kontzesionarioak, auto-eskolak, gasolindegia, aseguru-etxeak... bisitatzen ditu, eta komertzial lana oso sakrifikatua dela dio. "Leku batzuetara bisitan joan eta ez diote garrantziarik ematen zure lanari. Kristoren ate pila jo behar duzu, eta burua beti bueltaka, lanean izan ohi dut. Autonomoek hainbestetan aitutzen duten bakardadea sentitzen dut. Ia ez dago inolako laguntzarik".

Asmo berriak ez zaizkio falta; alde horretatik ekintzailea da oso. "Helburua 3-4 langile-rekin enpresa montatzea da, denborarekin. Honek paralelotasun asko ditu, eta gauzak oso ondo joanez gero, eskema bera erabilita elektronikako produktuekin beste webgune bat sortu dezakezu, adibidez. Buruhaustek buruhauste, goizean jaiki eta gustuko duzun lana egitea bezalakorik ez da!".

"Bizitzan aldaketa eman nahi"

Beharrak bultzata baino, merkatuan aukera ikusita negozioa irekitzera ausartu diren ekintzaileak dira Jon Garate eta Itsaso Zubizarreta senar-emazteak. Langabezian, halabeharrez zeozerri heldu behar eta pausoa eman. Ez da bikote honen kasua hori. Zubizarretak bulego batean 18 urte zeramatzen, eta Garate, berriz, autonomia zen, baina "bizitzan aldaketa eman nahi" eta negozioa saldu zuen, bezeroen kontaktu eta guzti. "Garraio lanean, zaharren egoitzetan eta etxeetan oheak eta altzariak muntatzen eta mantenu lana egiten aritzen nintzen aurreko lanean. Gabezia batzuk bazeudela jabetu, eta merkatua pixkat aztertu ondoren, sakonduz gero, aukera bazela konturatu nintzen", dio Garatek.

Laguntza teknikoaren sektorean dihardute, eta egunerokotasunean lagungarriak diren produktuak saltzen dituzte. "Aukera zabala eskaintzen dugu; haria orratzean sartzeko tresna txiki batetik hasi eta autoak egokitzeko edo elbarritu bat 4. solairura igotzeko jaso-gailuak eskaintzen ditugu".

Idea izan eta egitasmoa martxan jartzeko urtea pasatu zen, eta buruko hamaika neke. "Negozioa zer-nola bideratu erabaki behar genuen, ferietara joan, dendaren



Jon Garate eta Itsaso Zubizarreta senar-emazteak, Hobetuz dendaren atarian.

proiektua eta diseinua egin... Hasierako plan-teamendua zen emazteak bere lanari eustea, hilero soldata seguru bat bermatzeko, baina proiektua zenbat eta gehiago sakondu, jabetu ginen zerbitzu on bat eskaintzeko ni bakarrik ez nintzela nahikoa, bi lagun behar zirela, gutxienez. Ezin genuen negozioa herrenka hasi, nahiz eta hemen makulu mordoak eduki. Hartutako erabakirik zailena eta gogorra Itsasok lana uztea izan da. Negozioa irekitzeko diru asko behar izan dugu, baina eskerrak lokala geurea den, bestela ezinezkoa litzateke! Askok arriskatu dugu, baina proiektu honetan sinesten genuen, eta %100ean apostu egin dugu".

Lanerako duten filosofia ere ezin esan ohi-koa denik. "Orain arte izaten zen dendan egon, saldu eta kito, baina guk zerbitzu integrala eskaintzen dugu. Jendea etxeko arazoren batekin dator, ezjakinean, eta egoera aztertu ondoren aholkatu egiten ditugu. Etxe

guztietako ekonomia ez da bera, eta produktu aukera zabala eskaintzen diegu; bainugela baten kasuan hasi 40€ko aukeratik eta obra bat egiteraino. Jendeak ezagutu behar ditu hobeto bizitzeko eta autonomia izateko zer aukera dauden. Ez da saltzea bakarrik, lan asko egin behar da, eta garai hauetan-eta gehiago: aholkatu, saldu, muntatu, saldu eta alokatzen degun materiala erabiltzen irakatsi, eta arazo edo matxuraren bat bada urteko edozein egunetan eta ordutan prest gaude konpontzeko. Produktua erosterakoan jendeak asko baloratzen du hori. Orain txukun jantzita ikusiko nauzu, komertzial lanean; eta gero buzoa jantzita, matxuraren bat konpontzera edo saldutako oheren bat entregatzera joanda. Adineko jendeak zer behar dituen ezagutu eta nola zaindu –persona bat nola garbitu ohean dagoenean, zauriak ez sortzeko zer egin ezagutzeko merkatua ere asko uztertzen dugu, aukera onenak gero gure beze-

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Arrese, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **lenteria mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar

 **Koh Tao**

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

 **IRENE ALTUNA**
LORADENDA

Lorola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com



Iñaki Aizpuru, Plaza Txikian duten Aurkitu 24 saltokian.

roei eskaintzeko. Denean eguneratuta egon beharra dago”.

Zerbitzu ona eman eta kalitatezko produktuak eskaintzeaz gain, “gauzak hobetzeko zer egin pentsatzen” nekatzen dute burua. “Ezin da geldirik egon, hazteko grina eduki behar dugu. Ideia berri ugari dugu. Alokairuan ere badugu generoa, gero erosteko aukerarekin. Horrez gain, etxetik ateratzeko oztopoak dituztenei, hanka igeltsatuta dutelako-edo, zerbitzua ere ematen diegu. Nolanahi ere, denda ez da adinekoentzako eta ezinduentzako bakarrik. Ireki genuenean jendeak esaten zигun: ‘Zuen dendara oraindik behintzat ez nauk joango!’. Guk ideia hori aldatu nahi izan dugu, bestelako produktuak ere –errealizazioarako tresnak, tentsioa hartzekoa,

elektroterapia, hortzetako eskuila elektrikoa, edo eta zapata bereziak ...– saltzen ditugu”.

‘Vending’-a, formatu berritzailea

Eguneko 24 orduetan jendearentzako irekita dagoen *vending* makinaren negozioa formatu berritzailea da oso. Aitor Priya eta Iñaki Aizpuru orain dela urte erdi ireki zuten halako saltoki bat, Plaza Txikian. Oraingo ohiko produktuak saltzen dituzte –freskagarriak, gozokiak, sandwichak...–, baina zabala da makina horiek eskaini dezaketen aukera. Barruko arropa, kosmetika, medikuaren errezetarik behar ez duen botikako generoa... Bizkaiko bi *vending* saltokik sona handia hartu dute, txuletak eta arraina saltzen baitituzte.

Aurkitu 24-k atek ireki zituela hilabete

asko pasatu ez arren, ideia gauzatzeko egingandako bidea “luzea eta oztopoz bete” izan da. “Zarautzen halako bi daude, eta parrandan behin baino gehiagotan erosi izan dut zezor. Azpeitian *vending*-ik ez zegoela-eta, ideia ona zela ikusi nuen. Orain dela lau urte pentsatu nuen makinak jartzea –dio Aizpuru–, eta informazioa jasotzen hasi nintzenean jakin nuen Priya ere horretan zebilela. Hura ordurako hasita zegoen lege aldetik gauzak nola zeuden jakiten, hiru bat urte bazeramatzan horretan. Harremanetan jarri nintzen harekin, eta lan erdiak eginda zituen. Hasierean, bakoitzak norbere negozioa jartzeko asmoa bagenuen ere, gisa horretako negozioa martxan jartzeak eskatzen zuen lana ikusita, baimenak eta abar, bidea elkarrekin egitea erabaki genuen”.

Idea izan zutenean espero zutena baino oztopo gehiago bilatu izan dituzte bidean. “*Vending* makina horien inguruan ez zegoen legerik, eta Udalak hostalaritza sailaren barruan kokatu zuen. Taberna bati jartzen zizkion baldintzak betetzea eskatzen zigun. Borroka ugari izan dugu Udalarekin, eta bi epaiketa ere irabazi ditugu, baina azkenean...”.

Momentuz jatekoa eta edatekoa saltzen badute ere, makina horietan salgai “edozer” jarri daitekela dio: “Parafarmaziako generoa saltzeko baimena ere badugu. *Vending*-eko makinaren feria batean izan gara Madrilen, eta oso mundu zabala da. Produktu industrialen –eskularruak, olio...– makinak hasi dira tailerretan jartzen, eta norbere *pen drive*-arekin pelikulak jaisteko aukera eskaintzen duten makinak ere badaude. Urtea ez da bete ireki genuela eta oraindik gauzak pixka bat probatzen eta ikasten ari gara”.

Negozioa irekitzerako orduan “lokala egokitzen eta makinetan inbertsio handia egin behar” izan dutela adierazi du. “Tokia oso ona da eta negozioa ari da martxa hartzen. Nik uste dut herriarentzako ere ondo daudela halako makinak 24 ordu irekita, beti eskura”.

Vending-eko makina horien negozioa, ordea, ez da Priya eta Aizpuruaren ogibide nagusia. “Horretatik bakarrik bizitzeko gaizki, oso larri ibiliko ginatke. Aparteko ordainsaria da guretzako. Gastuak baditu, baina funtzionatzen du. Halere, dirudiena baino lan handiagoa du atzetik. Zapatu gauetan-eta Priyaren koinatua egon ohi da dendan, ordena jartzeko”.

Une honetan bi bazkideak elkarrekin “ondo moldatzen” direla eta “gustura” daudela dio, eta “gauzak ondo joanez gero negozioa zabaltzea” ere ez dute baztertzen.✳

20+10=30 urte

2010ean ezarri zioten Arrutiri 197/2006 Parot doktrina. Ezarritako kondena 2009an bete bazuen ere, doktrinak beste 10 urtez luzatu dio zigorra.  Ane Aranburu

20+10=30. Edo bestela esanda, 197/2006. 23 urte daramatza espe-txean Juan Karlos Arruti euskal preso azpei-tiarrak, eta 2009ko irailaren 10ean bete zuen ezarritako zigorra. Hala ere, 2010eko otsaile-an 197/2006 doktrina (Parot delakoa) ezar-tzea erabaki zuen Espainiako Auzitegi Gore-nak. Hori dela-eta, 2019ko irailera arte luzatu zioten zigorra.

Joxe eta Maixol Arruti anai-arrebek bazuten esperantza kasua Auzitegi Konstituzionalera iristean doktrina atzera botako zutela, baina azken egunotako albisteek bestelako tran-tzean utzi ditu senideak. Martxoaren 30ean Auzitegi Konstituzionalak 197/2006 doktrina ezartzea zilegi dela erabaki zuen, eta horren harira, doktrina atzera botatzeko 31 presok aurkeztutako helegitearen inguruko erabakia ere jakinarazi zuen. Horietatik 24 euskal pre-soen babes helegiteak ziren, eta hiru beste-rik ez zituen onartu Auzitegi Konstituzionalak. Beste 28 presoek kartzelan jarraituko dute, eta horien artean da Juan Karlos Arruti preso azpeitiarra.

Auzitegi Konstituzionalak hartu berri duen erabakia “golpe gogorra izan dela” azaldu dute Maixol eta Joxe Arruti anai-arrebek: “Alde batetik, poz hartu dugu kalera atera diren hiru presoengatik, baina ez dugu ahazu behar, horiek ere berez ezarritako kondena baino urte gehiago egin dituztela kartzelan”, dio arrebak. Hala ere, Auzitegi Konstituziona-laren erabakian “esperantzarako zirrikitu bat” bazutela esan du. Joxeren arabera, “doktrina-rekin ez zutela jarraituko uste genuen, baina dirudienez, gure esperantzak errotik ebaki nahi izan dituzte. Gainera, nola liteke Konsti-tuzionaleko bost magistratu –11 magistratuk osatzen dute Auzitegi Konstituzionaleko osoko bilkura– Parot doktrina aplikatzearen kontra agertu eta horrelako erabaki bat, aho batez erabaki gabe aurrera ateratzea?”.

Ondorengo urratsak nondik nora joango diren ez dakitela azaldu dute: “Ez dakigu he-mendik aurrera zer gertatuko den gure anaia-ri bezala Parot doktrina aplikatu dieten pre-soekin eta abokatuek ere ez dute informazio argirik. Azkenean, irizpide juridikoetan oina-

rritzen ez diren erabaki judizialen kontra borrokatu behar dute eta hori ez da lan erraza”.

“Mendekuzko zigorra”

Bai batak zein besteak, argi dutena da “men-dekua” izan dela zigor hau: “Mendekua, bai presoarentzako eta baita senide eta inguru-koentzako ere. Gaixo dauden presoak, 197/2006 doktrinapean daudenak, zigorra-ren 3/4ak beteta dituztenak... kalean egon beharko lukete. Gogorra da guzti hau eta su-frimendu asko eragiten du. Parot doktrinaren kasuan, gainera, zigorra betetzen ari den ur-teetan, pertsona kondenatuari espektatiba legitimoak aldatzen dizkiote, eta baita seni-deei ere. Beraiek ezarritako legeak urratzen ari dira”. Europan ere doktrina ezabatzeko helegitea aurkeztuko dela esan dute, baina horrek “luze” jo dezake: “Europatik erantzute-rako 6 bat urte pasatu daitezke eta ordura-ko jendea zigorrak ondo beteta egongo da”.

23 urte, hamaika kartzela

19 urterekin utzi zuen Juan Karlos Arrutik Az-peitia. Joxek 16 urte zituen orduan, eta Mai-xolek, berriz, 11. Handik urte batzuetara, 1989ko irailaren 16an hain zuzen, Guardia Zibilak atxilotu zuen Irunen (Gipuzkoa), ETA-koa zela egotzita. Geroztik Espainiako espe-txeetan eduki izan dute sakabanatuta, eta

||| “Zigorra betetzen ari den urteetan, pertsona kondenatuari espektatiba legitimoak aldatzen dizkiote; baita senideei ere”

MAIXOL ARRUTI [Juan Karlos Arrutiren anaia](#)



Maixol eta Juan Karlos Arruti anai-arrebak, bisita batean. ■■Marixol Arruti

gaur egun, Cordobako (Espainia) kartzelan dago, Azpeititik 780 kilometrora. "Euskal presoiei urte luzetan ezarri dieten sakabana-keta eta kartzela politika, bere osotasunean, gogorra egiten da senideentzako ere", diote. Hala ere, anaiarentzako beharbada gogorrenak Sevillan (Espainia) preso egon zeneko garaiak izango zirela diote: "bost minutuko bisitak izaten genituen eta kartzelan bertan

ere presoio eta mehatxu ugari jasan zituen preso sozialen baten ahotik".

Etorkizunari begira itxaropena badutela diote biek: "itxaropena badaukagu, hori ez da inoiz galdu behar. Gatazka behin betikoz konpontzeko denbora beharko dela pentsatzen dugu, hau ez da egun batetik bestera konponduko. Gaur gaurkoz, hala ere, golpe gogorrak jasaten jarraitzen dugu. Agoanta-

tzeko prest gaude, hori bai, eta badaukagu itxaropena gainera. Madrilen ere 500 bat lagun zerbait egitekotan dira eta hori, adibidez, oso albiste ona izan da".

Maiatzaren 12an Azpeitian ospatuko den Elkartasun Egunari begira, jendeari dei egin diete presoen aldeko ekimenetan parte hartzera eta eskerrak luzatu dizkiete egun hori antolatzen lanean aritzen diren herritarrei. ✘

Antonio Rafaniello HORTZ KLINIKA



Kolegiatu zk. 389

Aseguruekin ere lan egiten dugu.

**-Laser bidezko
hartz-zuriketa**

-Hartz-inplanteak

Enparan kalea, 8 - 1.
Telef. 943 81 67 36
AZPEITIA



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze olaizola|||

Zabor kontuak

Gurutze. Oraintxe izan naun zaborra botatzen. Eta ez dun lan erraza izan, kontrakoa ematen badin ere! Egunen batean kotxeren batek hankako behatz muturrak harrapatuko zizkidan... Hain zeuden bide ondoan edukiontzia...

Alaitz. Hain ondoan ere... Gure kasuan, Landetan, bidea gurutzatu behar gainera, baldin eta papera, plastikoa edo kristala birziklatu nahi baditun behintzat. Zebra biderik gabeko bide arriskutsua. Egoera horrek ez hau ezer birziklatzera animatzen... Baina hi, orain, atez atekoa omen zetorren...

Gurutze. Jendeak iritzi desberdinak dizkin, baina uste dinat ohitura kontua dela. Aldaketen aurrean normala dun kezka izatea. Hemendik urte batzuetara ohitura egongo gaitun, eta ez dinagu damurik izango. Dioten bezala, askoz ere gehiago birziklatuko dinagu.

Alaitz. Borondate kontua dun azken finean. Ba al zaukanagu ordea? Orain, "ba, papertxo honegatik...", eta birziklatu ez. Atez atekoarekin, ordea, nahi eta nahi ez, eta primeran iruditzen zaidan, aizan! Borondatez ezean, obligazioz. Duda bakarra zaukanat: non sartu hainbeste ontzi?

Gurutze. Egia, ez dinat horretan pentsatu. Nire kasuan, balkoia bazeukanat, baina etxe barruan zerbait kendu beharko balitz tokia egiteko ere, ni ados. Hik, zer kenduke huke, labadora, labea, hozkailua?

Alaitz. Nik? Argi zeukanat: NEU kenduko ninduken sukaldetik! Toki galanta geratuko huke nahi adina ontzi sartzeko! Sukaldean orduak pasatzen dizkinagu, honetan ez bada beste hartan... Neu atera bertatik, eta kito.

Gurutze. Ez, ez, ez... Hori, aldaketa berri baten aurrean ihes egitea dun. Hik ere,

|||**GURUTZE.** "Hik zer kenduko huke, labadora, labea, hozkailua?"

|||**ALAITZ.** "Nik? Argi zeukanak: NEU kenduko ninduken sukaldetik!"


denak bezala, lehen esan dunan moduan "borondate" hitza aplikatu beharko dion hire buruari. Mundu hau horrela dun, eta gu bere parte garenez "obeditzea" tokatzen zaigun.

Alaitz. "¡A sus ordenes, mi capitán!" Argi zagon: nik egiten ez badinat ez din beste inork egingo. Egingo dinat tokia ontzientzako, bai horixe. Ederrena, arrandegira edo harategira gure tuperrarekin joaten hasten garenean... Antxoak direnean, koxkorragoa, arkumea denean berriz, kristorena!

Gurutze. Kontuak kontu, umorez helduko zionagu zabor kontu honi, eta orokorrean, beste gauza askori ere bai. Momentuz, hementxe utziko dinagu. Frogatutakoan hitz egingo dinagu. Aio!★



Aisialdia baino gehiago

Adimen urriko pertsonak Txolarte Eguna ospatuko dute Azpeitian, hilaren 12an. Egun horretan, Gipuzkoako Txolarte erabiltzaile guztiak elkartuko dira. Animatu zu ere!  Ainitze Agirrezabala

Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak da Atzegi, eta haien eta beraien sendeen bizi kalitatea hobetzeko lanean dihardu, azken 50 urteetan. Hori lortzeko ekimenen artean Txolarte aisialdiko taldeak daude. Talde horiek asteburutan elkartzen dira, eta bertan 16 urteko gorako adimen urriko pertsonak parte hartzen dute. Txolarte klubak oinarria begirale bolondresak osatzen dute, eta gaur egun 12 Txolarte talde daude.

Txolarte eguna urtean behin egiten den elkarretaratzea da. Maiatzean egin ohi da urtero, eta aurten Azpeitian ospatuko dute, hilaren 12an. Egun horretan, Gipuzkoako Txolarte erabiltzaile guztiak elkartuko dira.

Egun osoko ekintzak antolatutuzte: goizean, 11:00etan,

III DATUAK

III **Zer.** Txolarte Eguna.
III **Eguna.** Maiatzak 12 (zapatua). III **Ordua.** Egun osoa. III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua eta berdura plaza. III **Antolatzailea.** Atzegi eta Urola Erdiko Txolarte.

Udaletxe aurrean ongietorria egingo zaie talde guztiei. Gero, ekitaldia aurkeztu, opariak banatu eta antzerki baten bidez bailara aurkeztuko dute, Izarraitz pilotalekuan (11:30). Izarraitz pilotalekutik plazarako bidea Elektrotxaranga-ekin egingo dute, 12:30ean.

Ondoren, bazkaria egingo dute Berdura plazan (13:30), eta 15:30ean DJ festa izango da Izarraitz pilotalekuan.*

III TXOLARTE EGUNA

12 Txolarte talde. Dozena bat aisialdiko talde daude Gipuzkoan, eta hilaren 12an guztiak elkartuko dira Azpeitian.

10 euro. Bazkaltzek paella, albondigak eta postrea izango da. Sarrerak salgai: Sanagustinen, Eguzkitzan eta Orkatzen.*



Hondarribian ospatu zuten iaz Txolarte Eguna, eta Azpeitiko taldeak han pasatu zuen eguna. III **Txolarte**

III BESTERIK

1 'Gazte Astie 2012', apirilak 7-13
Gazteek izango dute zer egin eta zer gozatu, gaztetxeak ekimen ugari antolatu baitu: hitzaldiak, afari-tertuliak, bertso trama, kontzertuak, parodia txikiak; haur, gazte eta helduek gaztetxea ezagutzeko aukera...
III **Eguna.** Maiatzaren 7tik 13ra.
III **Tokia.** Gaztetxea eta herriko kaleak. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Gazte Asanblada.

2 Mendi astea ekimenez beteta
Hiru emanaldirekin gozatzeko aukera dute mendia gustuko dutenek. Gorka Karapeto eskalatzaila, Josu Bereziartua alpinista eta Mikel Bringas eta Rosa Lizaso bizikletazaleak izango dira hizlari.
III **Eguna.** Maiatzaren 22tik 24era (asteartetik ostiralera).
III **Ordua.** 21:00 III **Tokia.** Lagun Onak M.Bren elkarteko aretoa.
III **Antolatzailea.** Lagun Onak.

3 Gartxot, taula gainean
Gartxoten kondaira taularatuko dute herriko zazpi kultur talderen artean. Agertokian izango dira: Julian Barrenetxea Abesbatza, Azpeitiko musika Banda, Antxieta Musika Eskola, Itsasi, Sahatsa, eta Lakrikun eta antzerki tailerra.
III **Eguna.** Maiatzak 18 (ostirala).
III **Ordua.** 21:30 III **Tokia.** Soreasu. III **Sarrera.** 3 €.
III **Antolatzailea.** Kultur Mahaia.*

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** uztarria.com/agenda

Euskal Herriko eta munduko **berriak jaso nahi dituzu euskaraz?**

Eskaintza bat egin nahi dizugu:

BERRIAren harpidetza **%50 merkeago 2012an**

informazio nazionala eta lokala **eskaintza osatua**



Asteartetik igandera, euskarazko egunkari nazionala. Kalitatezko informazioa, garai berriak hobeto ulertzeko.



Asteartetik ostiralera, tokiko euskarazko informazioa. Eskualdeetako HITZAK.



Ostiraletan, herrialdeetako HITZAK.



Aisialdiaz gozatzeko behar duzun guztia eskainiko dizun hilabetekaria

paperean ●●●●●●●●



berriketan.info

Komunitate irekia, informazio jarioaren sare soziala. Topagune eta eztabaidagune berria.

www.berria.info



Herrietako Hitzen webguneak.

●●●●●●●● **sarean**

Harpidedunen beharretara egokitutako zerbitzua

- Aukeratu ezazu harpidetza aste osokoa, astegunekoa edo asteburukoa nahi duzun, eta prezio erdian emango dizugu.
- Goizean goiz eramango dizugu, zuk aukeratzen duzun lekura.
- Gainera, harpidedun izateak hainbat abantaila emango dizkizu: deskontuak, zozketak...

Zu zara berria

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

HITZ GEZIDUNAK

		Baztanga	Bihotza ukitu	Abar xehe	Sake egile	Abesbatzak				
		IRUDIAN	Egunaren atal	Nago	Potasio nitrato					
		Fanatismo-ari emana	Erdietsia							
Begi gaineko azal	Laukizko									
Zaldiaren eme	Eizkizun mota									
				Erkatu, alderatu						
				Ideiei dagokie						
Ukatzeko hitza					Ahotsa					
Galdera-duna					Noka, naiz					
						Nor atzizkia				
						Su				
Zure					Ez ilun					
Bataioa eman					Tantailoa			Bizkaiko herria		
						Bih, garau				
						Boroa				
Musika nota			Metalezko haria							



Egilea: Luma

* Azpeitiko futbol taldea

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan hosto erorkorreko 8 zuhaitz arrunten izenak



O	H	I	U	R	R	E	Z	U	P	A	I
R	A	M	N	A	I	L	U	P	Z	A	R
O	K	G	O	I	F	A	S	T	U	K	O
S	A	G	H	I	O	L	L	A	R	E	M
K	A	N	M	A	K	A	I	M	E	R	D
P	I	R	A	E	H	K	P	A	I	O	U
U	K	H	A	L	U	A	Z	O	G	L	H
U	Z	I	H	I	G	M	R	T	L	A	U
G	E	U	N	A	A	F	D	I	K	S	A
S	O	R	M	U	R	I	Z	A	T	K	I
I	A	K	E	A	H	A	R	D	O	Z	R
N	O	I	K	E	R	O	T	U	E	L	A
T	X	A	I	R	U	R	I	Z	A	I	D
S	U	Z	A	R	L	I	A	P	U	S	O

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	E	R	B	N	A	V	A	●	A	L	●
L	E	A	●	U	T	A	V	A	T	A	B
●	I	G	A	R	E	U	R	E	Z	●	●
K	●	A	N	A	D	U	E	T	A	K	●
A	Z	●	B	●	T	R	I	R	T	●	●
U	T	A	R	Z	I	●	R	O	H	E	B
R	A	Z	I	K	U	L	A	●	B	●	●
O	K	I	A	N	A	F	●	●	●	●	●
K	A	N	O	N	U	G	L	A	●	●	●
●	S	●	Z	●	H	●	N	●	●	●	●

HIZKI ZOPA

O	S	U	P	A	L	R	I	A	Z	S
D	I	R	I	V	A	I	X	T	U	S
L	E	T	U	E	L	A	K	E	R	N
R	A	R	D	O	Z	R	I	A	K	O
I	K	I	Z	A	T	K	I	S	O	R
A	S	A	F	D	I	K	S	A	G	E
U	D	A	V	A	U	Z	I	H	I	G
H	L	G	Z	O	G	L	H	A	L	U
U	P	A	I	O	U	R	I	A	E	P
D	M	E	R	D	K	A	N	M	A	K
M	E	R	D	K	A	N	M	A	K	A
E	M	A	R	E	M	S	A	G	H	I
K	O	S	T	U	K	O	K	G	O	F
R	A	M	N	A	L	U	P	Z	A	R
O	H	I	U	R	E	Z	U	P	A	I

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



|||ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Maiatzak 22 (asteartea) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da |||ZEIN DEN ADIERAZI / |||||ZER DAGO SOBERAN|||||ZER DAGO FALTAN.

|||ZURE IZEN-ABIZENAK

|||TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN APIRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



DAVID ZURUTUZA, REALEKO JOKALARIA



IRABAZLEA



Maria Jesus Larrañaga Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 138. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Maria Jesus Larrañaga, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



Azala bai ala ez?

Meloia, laranja edo kiwiaren kasuan beharrezkoa da azala kentzea, baina azala jangarria den kasuetan (sagarra, udarea) interesgarria da osasunarentzat ez kentzea, oso aberatsa baita bitaminaz.

Badira melokotoiaren biloa jatea gustuko ez dutenak edo mahatsaren azalak hortzetako ikara sortzen dietenak. Urtero handitzen doaz fruta aleak, baina ez dute berez behar duten zaporea; zientziaren aurrerapenek dituzten aldeko eta aurkako kontuak dira. Baina zapore hori gutxien galtzen duena azala da; teoria horrek balio dezake azala ez kentzeko arrazoi bezala.

Fruta osasuntsua lortzeko asmoz pestizidaz tratatzen dira tarteka fruta arbolak. Izurriteen aurka erabilitako pestiziden artean ez dago bakar bat ere gizakiari kalterik egingo ez dionik. Dena dela, frogatu ahal izan da, pestizida erabili eta astebetetera toxikotasuna galdu egiten duela, batez ere azalean bakarrik erabili bada. Komenigarria eta beharrezkoa da, beraz, fruta uretan garbitzea, mahaira eraman aurretik.

Zitrikoen kasuan batzuek askotan kentzen diete azala mami haragitsua azaldu arte, baina azal azpiko mintza zurixka, mikatz xamarra, oso aberatsa da bitamina eta gatz mine-ralei dagokienean.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

ARITZ IKUTZA burdindegiko langilea



1. Gehien saltzen dena?

Tupperrak, eskegailuak azal-kentzekoa, kola...

2. Eskatu dizuten gauzarik arraroena?

Farmaziako botikak.

3. Ohiko bezeroak...

Gizonek brikolajea; etxeko tresneria, emakumeek.

4. Anekdotarik?

Etxe batetik deitu ziguten armairua muntatzeko; joan ginen eta... putetxea zen.

5. Dendan duzun zer generok harritu zaitu?

Laranjak zuritzekoak.

6. Asmakuntza onena?

Jana bapore bidez

sukaldatzeko silikonazko ontzia.

7. Etxe guztietan egon beharreko erraminta...

Metroa eta '3en1' olio.

8. Argibide asko eman beharra izaten duzu?

Torlojuekin, ikaragarri.*

📌 Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO
MARGOAK

PEUGEOT
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

lora-etxea . . .
Kimubat
ASTE BUKAERAN IREKIA
azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

ELKARRIZKETA ONLINE || orkatz goenaga (Ingurugiro Etxea Fundazioko zuzendaria)

“Irabaztea gauza bat da, eta bestea goian mantentzea”

|| Energiaren arloan eskualderako plangintza egiteko proiektua, 'Energia adimentsua', abian da. Gaiaren gainekoak eta Ingurugiro Etxea Fundazioak esku artean dituen bestelako ekimenen inguruan hitz egin du Goenagak.

Zer da **Energia Adimentsua**?

Eskualdea energia kontsumitzailerik izatetik energia kudeatzaile bilakatzea. Orain arte guk energia ekoizpen gune handietatik jaso eta kontsumitu besterik ez genuen egiten. Askotan non eta nola sortua den kontuan hartu gabe gainera. Proiektu honekin edozeinek energia sortu eta sare txikien bidez gertukoaren artean banatu dezake.

Ingurugiro Etxeko museoa ezagutzen du jendeak, baina fundazioa? Zertan ari zarete?

Orain arteko ibilbidean ezagutzen den proiektua "energia adimentsua" da, eta eskualdeko



energia kudaketa ardatz duen inkestak ari gara egiten. Aurreko otsailean hondakinen prebentzioari buruzko jardunaldi teknikoak antolatu genituen. Helburua profesionalak heztea zen, hondakinek ez sortzeko lanabesak eta teknikak irakatsiz; Euskal Herriko udal administrazioetako 90 bat partaide izan ziren. Bestalde, proiektu ikusgarriena Ereiten da: Azpeitian eta Azkoitian bina erakusketa-herri baratza eraiki ziren,

eta sukaldaritza zein baratzezaintza ekologikoko ikastaroak antolatu ziren, arrakasta handiz, gainera.

Atez ateko bilketa sistema ingurugiroarentzat dioten bezain ona al da?

Atez ateko bilketa ez da ez ona ez txarra ingurugiroarentzat, bilketa sistema bat besterik ez da; garrantzitsua dena zero zabor estrategia bat martxan jartzea da. Hor atez atekoa edo beste edozein bilketaren artean erabaki behar du gizarteak, hainbat eredu baitaude. Garbi dagoena da hondakinen bilketa egun ez dela eraginkorra. Eztabaida atez atekoan zentratzen ari da, gehiegi politizatuz. Eztabaidak beste bat izan behar du: kontsumo eredua eta kontsumoa egiteko moldeak, merkaturatzen diren produktuez eta herritarrok, enpresek eta administrazioak ditugun eta onartzen ez ditugun ardurez.*

EFEMERIDEAK ||

1590

Aurretik zerraila bat zuen.

Udaletxeko areto nagusian liburuak eta herriaren pribilegioak jasotzeko erabiltzen zen kaxari lehenaz gain beste bi zerraila jartzea erabaki zuten. Aurretik zerraila bat zuen.

1694

Behartsuak herritik

kanpora. Kanpotar behartsu guztiak herritik bidaltzeko egindua eman zuen probintziak bere garaian. Herriak agindua bete zuen, baina garbi ikusten zen batzuk behintzat itzuli egin zirela. Herrian zeuden behartsu guztiak, herritarrei salbu, ahalik eta azkarren bertatik irteteko agindua elizak ematea erabaki zuten.

Iturria: *Azpeitiko efemerideak.*

Herria historian zehar liburuak.

|| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|| Argitaratzailea: Uztarria Kultur

Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|| eguneko albisteak || irakurleen erantzunak || eguneko argazkia || bideoak || blogak || inkesta || agenda || bitxikeriak || 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... || uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai || eguneko efemerideak || gida komertziala...

|| sartu sarean, eta hartu parte || egunero **7.000** orrialderen bisita





Behar zen ur tanta hura

Loiolako Herri Irratiaren ahots ezagunenetakoa izan zen 31 urtez. 📧📍 Mailo Oiarzabal (Zarautz)

Itziar Sagarzazu (Getxo, 1937) ezagutzen dutenek zail daukate haren urtebetetze egunaz ahaztea. Egun seinalatuan jaio baitzen, faszistek Gernika bonbardatu zuten egun berean; Getxoko Areetan jaio ere, gurasoak eta hiru anaia zaharragoak Zestoatik hara alde eginda zeudela. Haur besoetakoa zela, Bizkaitik lehendabizi Santanderrera (Espainia) eta handik, amarekin eta anaiekin, Normandiara (Frantzia), gerratik ihesi, babes bila. "Aita hemen gelditu zen, eta halaxe ordaindu zuen. Lau urte barruan eduki

zuten, gaixorik etorri zen eta, denbora gutxi egin zuen gero", kontatzen du. Normandian urtebete inguru egin ondoren itzuli ziren ama eta seme-alabak, etxera edo: "Zestoan etxea eta gauza guztiak kendu egin zizkieten eta Azpeitira etorri ginen, aittitteren etxera. Al-pargatak egiten eta, bere bizimodua atera zuen", dio, amagatik. Zestoara itzuli ziren gero, eta han bizi izan zen Itziar Sagarzazu orain dela urte gutxia arte.

Orain Zarautzen bizi da eta, han, 75 urte bete bezperetan hartu du zestoarrak Uzta-

ria, ia bizitza erdia lantoki eta etxe izan zuen Loiolako Herri Irratian bizitakoez hitz egiteko.

Kontuz Jose Antonio Agirrerekin

Ile-apaintzaille familiakoa –ogibide hori zuten gurasoek eta anaiek–, bestelako bidea hartu zuen Itziarrek. 24 urterekin iritsi zen Loiolako Herri Irratira, 1962an, irratia sortu eta hurrengo urtean. Esatariak hartzeko probak egiten ari zirela jakin eta aurkeztea erabaki zuen; deitzerako "denbora asko pasatu" zutela gogoratzen du, baina deitu zioten azkenean, la-

nerako. Horrela ekin zion 31 urtez luzatuko zen ibilbideari.

Irakurtzea, antzerkia –Zestoako taldean ibili zen– eta, nola ez, irratia, oso gustukoak zituen zestoarrak: “Orduan Radio San Sebastian eta halakoak entzuten ziren. Juanito Valderramaren *El inmigrante*-eta asko entzuten genituen; Euskal Herriko musika jartzen zutenean, bilbainadak izaten ziren, Los Chimberos, Los Bocheros, eta halakoak. Haiek ziren euskal abestiak, haientzako”. Esatari lana, ordea, guztiz berria zen. Lanean hasi eta aurreneko lana *angelus*-a erreztatzea izan zuela gogoan du, “eta zutenean, e?”. Jesulagunena zen irratia eta erlijio edukiek pisua zuten programazioan. Hortik aurrera, ordea, jesuitek “askatasuna” ematen zietela dio Sagarzazuk: “Ez ziren ezertan sartzen. Jesuitek guri ardura eman ziguten eta guk ardura horrekin jokatzeko genuen. Geure irizpideak finkatzeko askatasuna genuen”.

Beste batzuekin arazo gehiago izaten zuten. Kutsu kristaua ez ezik, euskalduna eta euskaltzalea izatea zen Loiolako Herri Irratiaren ezaugarria, noiz eta Francoren diktaduraren zentsura zorrotzak indarrean zirauen garaietan. Euskaraz aritzen ziren Loiolan eta euskal kulturaren berpizkunde garai hartan pisua izan zuen Herri Irratiak. “Bihotzez egiten genuen, bagenekien-eta guk bakarrik egiten genuela lan hori, beste inon ez zen lan hori egiten”, azpimarratzen du Sagarzazuk.

Grabazio guztiak Informazio eta Turismoko ordezkari zara bidali behar izaten zituzten, Donostiara. Eta salaketak ere jasotzen zituzten. “Hurrekoak izaten ziren, Madrilekoak ez”, dio, ironiaz. Salaketa haien funtsaren ideia bat izateko, hara adibidea: “Jose Antonio Agirre zenbat diren, Euskal Herrian... eta askotan esaten genuen ‘Jose Antonio Agirre’,



1. 1965ean, antzerki-esketx haietako bat egiten. Eskubikoa da Sagarzazu. **2.** Carmelo Otaegirekin, idazmakina aurrean duela. **3.** Sagarzazu, Otaegi eta ‘Itxumendiko Joxe’, azken horri eskaini zioten omenaldian, 1991n.

baina ez lehendakariaren alde. Ba, hortik askotan etortzen zizaitzigu, kontu eske”.

Herriaren irratia

2010ean itxi zuten irratia Loiolan eta “pena handia” hartu zuen Sagarzazuk. “Izan ere, hainbesteko ilusioarekin egin genuen lana! Ba al dakizu zer zen, Euskal Herrian, urrats haiek ematea? Kultur arloan, baseritarrekin ere zenbat lan... Horiek denak hor gelditu dira, bai; baina, gelditu egin dira”. Egindakoaz harro dago, “Loiolako irratia benetan bere-

na sentitu izan” duelako jendeak, “eta igoal guk ere hala sentitu arazi diegu; nik baietz uste dut”. 1977an *Batallón Vasco Español*-ek jarritako lehegailuak Itxumendiko errepi-kagailua suntsitu eta, herritarren laguntzari esker, aste pare batean antena berriro jaso zutenekoa horren adibideetako bat izan zen.

“Sentimendu bat jarri dugu, hazi bat jarri dugu herrian. Udaberriaren eta udazkenean lurra zizak eta ondoak emateko ur pixkatean zain egoten den bezala, Euskal Herria ere halaxe zegoen”, azaltzen du Sagarzazuk.★

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

luba
aholkularitza

Aholkularitza
fisikala
laborala
kontablea

Gestori lanak
Finken administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tlf.: 943 157 525 Faxa: 943 157 275
Enparan kalea, 45 • luba.euzkalkol.net

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 55 08
Faxe.: 943 15 03 62

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulatorio larrialdia	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (MAIATZA)

EGUNEZ

1-5-10-13-17-23-28-29	2-7-8-12-19-25-31	3-9-14-15-20-26	4-16-21-22	6-11-18-24-27-30
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811 949	943 811 274	943 080 258	943 811 350	943 815 974

GAUEZ

1-9-10-11-12-13-14-15-23-24-25-26-27-28-29	2-7-8-20	3-4-16	5-17-18-30	6-19-21-22-31
Alberdi (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 815 974	943 850 660	943 852 989	943 851 235	943 851 966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 09:00-13:30 || Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 10:00-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ERRENTA EUSKARAZ.

2011ko errenta aitortzeko epea zabalik da Gipuzkoan, eta herritarrak errenta aitortpena euskaraz egitera animatuz kanpaina abian jarri du Udalak Euskara Patronatuaren bidez.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

EKAITZ GARMENDIA

Karrantza

“karrantzako jendea oso abertzalea dun”

Duela bi urte baserria erosi eta berritze lanak bukatzean, ‘benetan gozaten’ orain hasiko direla dio. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

Karrantzan ba al zekitek non dagoen Azpeitia?

Giputxitzat naukaten, baina batzuk bai eza gutzen dituen. Azpeitiarren bat ere izan omen zunan hemen, errota bat zuena.

Azpeitiar bat Karrantzan...

Neskalagunarekin La Arboledan hiru urtez bizi ostean, baserri bila hasi gintunan Gipuzkoan eta Bizkaian. Errezilen, Zeanurin, Nabarnizen... ia erosi geninan, baina azkenean Karrantzan aurkitu dinagu gure paradisua.

Kaletarra landa-eremu batean...

Bai, batzutan alderantziz izaten dun baina gure kasuan, kaleko bizia baino nahiago ditinagu mendiko bakea eta naturaren gertutasuna. Oilo batzuk eta baratza jartzeko asmoa dinagu baserriko obrak bukatu ostean, eta neure musika estudioa ere bai!

Legen Beltza taldean ere jotzen duk.

Zertan duk taldea momentu hauetan?

Atsedean luze bat hartzea erabaki geninan urtearen hasieran, bakoitzaren konpromiso pertsonalak tarteko. Ivan baterijolea Berlinen bizi dun, ni Arboledan eta orain Karrantzan eta distantziak ere ez din laguntzen lagun

talde baten funtzionamenduan. Hala ere, gaur egun Internetek asko laburtzen dizkin distantziak, eta entseatu gabe ere dexente kontzertu jo ditinagu inolako arazorik gabe. Baditinagu buruan bueltaka gauzak eta proiektu berri batzuk badaude dantzan.

Azpeitiak ez duen zer dik Karrantzak?

Aire garbia, bakea.

Eta Karrantzak ez duen zer Azpeitiak?

Kutsadura, kar, kar, kar. Familia eta lagunak ditun faltan gehien botatzen ditudanak.

Sarri etortzen al haiz Azpeitira?

Hilean behin edo bitan, gehienez. Gutxitxo, aukeran. Lana eta distantzia medio, zail egiten zaidan sarriago joatea.

Zer moduz bizi zarete hor?

Oraindik herrian ez gaitun asko “integratu”, baserriko lanak direla eta ez gaitun atera ere egiten. Baina mendiz inguratutako paraje bikaina dun, eta jendea, hasieran itxi xamarra dirudien arren, oso eskuzabala eta atsegina dun. Historikoki ez dun inoiz hitz egin euskaraz hemen, baina jendea oso abertzalea dun. Euskara asko ari dun uztatzen, eta gazte jendea gogotsu datorrela zirudun.*



1

1. Ekaitz Garmendia, gitarra eskuetan duela.
2. Karrantzako paraje “zoragarriak”, Sergio Gonzalez Ahedo argazkilariak aterata.



2



3

monogamo gara poligamo (II)

Eta hilabetea joan da, eta egoera aldatu da, bere horretan dago egoera. aldatu da, ez da aldatu. andreak erabaki du sentitu du barruak esan dio gizona beste inor ez duela maite. beste gizonekoari ezetz esatea erabaki du, horretara inork behartu gabe erabaki du andreak. eta joan zaio beste gizonekoari eta esan dio. 'ezin dut segi, barruak ez dit agintzen, beste aukera bat eman nahi diot neure buruari, nire gizonari, dudanari, nauenari'. esan dio, eta gizonekoak ez du ulertu. 'nola liteke, ordea? lehen hainbeste maite ninduzuna, eta orain ezetz diozu. zer izan da, zer da aldaketa hau, egun batetik bestera?' eta andrea saiatu da ahalegindu da eginahalak eta bi egin ditu, baina ez du gizonekoak baretu. denbora eman du haren ondoan, entendiara nahian, alferrik.

egunak joan dira, egunen gurpil zoroa, eta gizonekoak betetzen hasi da, husten, barrutik lehertzen. eta lehertu denean, munduan diren eta ez diren negar eta minak etorri zaizkio. erraietako ondoeza izan du. ondoez horretan bakarrik ikusi du bere burua, bakar-bakarrik, jendez inguratuta bizi den gizoneko gizajo tristea, yoga irakasle trebatu gaixoa bakarrik, bakardadean bakar. eta laguntza behar duelarik, ezetz esan dion andrekoari joan zaio negarrez eta minez bihotza eskuan, ez dezala horrela utzi erreguka, faborez arren mesedez, ez uzteko bakarrik min handi horren barruan.

eta andreak haren laguntza dei larria jaso eta izutu egin da, ezegitekoren bat egingo ote duen gizonekoak, haren mina sentitu du, bere barrura sartu du, kezkatu da, loa galdu du, ezetz esan dio baina haren mina arintzen lagundu dio. andreak gizonekoari. bitartean, gizonarekin gozatu ezinda bizi izan da andrea. gizonekoaren oinazeak ez dio utzi bakean bizitzen. berak eman dio, berak kendu. hil nahi izaterainoko bihotzondokoa eragin dio gizonekoari. andrearen gizona,




|||||||miel a. elustondo|||

|||(...) errukitu zaio, lehenaz gainera, eta ez da gauza 'berriz gehiago ez' atzera esateko.

lekukoa da egoeran. andreak eskatu dio estutasun horretan ez uzteko bakarrik, egoteko beraren ondoan. eta gizona andrearen ondoan, andrearen bidez gizonekoak senperrenak gorriak eta beltzak ikusten ari dela eguna joan eta eguna etorri aditzen.

eta hainbestetan egon da andrea gizonekoarekin, errukitu zaio, lehenaz gainera, eta ez da gauza 'berriz gehiago ez' atzera esateko. eta lehen ezetz esan bazion ere, haren ondoan egoten hasi da, gizonekoaren berri-keta zurian gozaten, nola lehen adan eta eba haiek sugaeren miztoak engainatu ziren, hala engainatu da andrea, endredatu du bere burua berri. maite duela esan dio gizonari, maite duela bera –gizona, senarra–, maite duela bestea –gizonekoak–, eta trankil dagoela horretan. gizonarekin oheratu da, oheratuko da behin eta berri eta askotan, maite duelako –gizona, senarra–, baina maite du gizonekoak ere.*



BATXILERGOKO AURRE-MATRIKULAZIOA

Maiatzaren 2tik 11ra



matrikulatu zaituz on-line:

www.urola.org

PAUSOZ
PAUSO
ETORKIZUNA
ERAIKITZEN



Perdillegi, 3 - Azpeitia
Tlf: 943 81 37 70



Altamira auzoa z/g - Azkoitia
Tlf: 943 85 21 74



BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

DBH

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Instalazioa eta altzari hornikuntza

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa



Euskadi
2 0 0 5



JOXE MARI IPARRAGIRRE

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Sta. Barbara bidea, z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia.

A-D EREDUAK



LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 5tik 11ra (biak barne)



horzkari
hortz osasun klinika



Hortz-implanteak
Ortodontzia
Aho-kirurgia
Protesiak
Erradiologia
Aho-estetika

Eta zurrunken arazoarentzat ere badugu irtenbidea:
Ortoapnea protesi iraultzailea da zurrunkentzat soluzio eroso,
erraz eta eraginkorra

www.grupohorzkari.com

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52



Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehenengo hortz klinika



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1
Tel/Fax: 943 81 16 50

UDARRIA-UDA 2012

